



**Txostena, Getxoko Hirigintza
Antolamenduaren Plan Orokorra
Berrikusteko I. fasearen (aurretiko
azterketen) gaineko partaidetza-
prozesuari buruzkoa**

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Aurrekariak eta lege-esparrua.....	3
3. Prozesuaren faseak.....	4
4. Metodologia partizipatiboa.....	4
5. Partaidetza-jardueren deskribapena (1. fasea).....	5
5.1 Prestakuntza-etapa.....	5
5.2 Partaidetza-etapa.....	6
5.3 Ebaluazio-etapa.....	7
6. Lehen faseko emaitza nagusiak (balorazio eta ekarpen garrantzitsuak)	7
7. Partaidetza-prozesuaren ebaluazioa.....	9
7.1 Lehen saioari buruzko balorazioak.....	9
7.2 Bigarren saioari buruzko balorazioak.....	11
8. Prozesuari buruzko datu estatistikoak.....	12
9. Eranskinak.....	13

1. Sarrera

Getxoko udalerriko Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorra Berrikusteko I. fasearen, hau da, Aurretiko Azterketen gaineko Partaidetza Prozesuaren Txostena egikaritze-aldian, hau da, 2013ko maiatza eta ekaina bitartean, baliatutako metodologiak eta gauzatutako partaidetza-jarduerak biltzen dituen dokumentua da.

Partaidetza-jarduerak gauzatu dira Herritarren Partaidetza Programa oinarri hartuta.

Orain arte, partaidetza-prozesu horretan, Getxoko herritarrek eta hainbat erakundeko ordezkariak osatutako lantalde gai hauen gaineko ekarpenak egin ditu: udalerrri-ereduak, lurraldearen antolamendua, natura- eta arte-ondareen babesa, sistema orokorrak eta hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria garatzeko moduak.

2. Aurrekariak eta lege-esparrua

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2000. urteko urtarrilaren 18an onartu zuen behin betiko Getxoko udalerriko Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorra, udalerrria goitik behera antolatzeko tresna gisa. Planaren artikulua 2001eko uztailaren 23an argitaratu ziren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (zenbakia: 141), ezinbesteko zuzenketak egin ondoren. HAPOko Jarduera Programaren arabera, Plana bi laurtekotan garatuko da.

Plana onetsi zutenetik, lurraldea antolatzeko tresna gehiago onartu eta arauak aldatu direnez, eta, batik bat, indarrean jarri denez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea (LHL), ikuspegi, premia eta errealitate berriak sortu dira, eta berritasun horiek ez datoz bat Plan Orokorreko irizpide, helburu eta aurreikuspenekin.

LHLko Bigarren Xedapen Iragankorrak honako hau dio: “Nolanahi ere, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko zaizkie lege honen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko dira gehienez ere zortzi urteko epean”. Agindu hori, beraz, aurrez aipatutakoa indartzen du.

Gauzak horrela, bistakoa da Getxoko udalerrirako aurreikuspenak berriz planteatzeko, irizpideak berrikusteko eta hirigintza-etorkizuna planifikatzeko garaia dela.

Premia hori ikusita, Udalak Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorra berrikusteko prozesuari ekin dio: hainbat lan esleitu ditu, 2011ko uztailaren 26an Gobernu Batzordeak hartutako erabakiaren bidez (erabakiaren zenbakia: 374); eta Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorren Bulegoa sortu du, egile-taldeari laguntzeko eta Udala eta herritarrak lotzeko.

HAPO berrikusteko prozesua behar bezala gauzatze aldera, Udalak arau hauek hartu ditu kontuan:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa (LHL).
- Lurzoruaren Legearen testu bategina onartzen duen 2/2008 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, ekainaren 20koa (2/2008 LED).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 LEGE Orokorra, otsailaren 27koa (3/1998 L).
- EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2001/42/CE ZUZENTARUA, 2001eko ekainaren 27koa, plan eta programa jakin batzuk ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa (2001/42/CE Z).
- Plan eta programa jakin batzuk ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko 9/2006 LEGEA, apirilaren 28koa (9/2006 L).
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 LEGEA, azaroaren 26koa (30/1992 L).
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriak buruzko 105/2008 DEKRETUA, ekainaren 3koa (105/2008 D).
- Ingurumenaren gaineko ebaluazio bateratua egiteko prozedura arautzen duen 183/2003 DEKRETUA, uztailaren 22koa (183/2003 D).
- Ingurumen-gaietan informazioa eskuratzeko, jendeak parte hartzeko eta auzitegietara jotzeko eskubideak arautzen dituen 27/2006 LEGEA, uztailaren 18koa (27/2006 L).

Indarrean dagoen hirigintza-legeriaren arabera eta, zehazki, LHLko “Herritarren parte-hartzearen printzipioa”ri buruzko 8. artikularen arabera, hirigintza-plangintza “egin, izapidetu, onartu eta egikaritzekoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten”.

Printzipio orokor hori LHLko 108. artikuluan dago zehaztuta: “Egiturezko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, **herritarrek parte hartzeko programa** finkatu beharko da”. Artikulu horretan azalduta dago, halaber, herritarren parte hartzeko eskubidea bermatzeko zer mekanismo baliatu behar den.

Eta hori guztia aintzat hartuta idatzi da **Herritarren Partaidetza Programa, herritarrek eta elkarteek Getxoko Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko prozesuan parte hartzeko daukaten eskubidea ziurtatzeko**.

Izan ere, asmoa da eskubide hori bermatzeko mekanismoak zehaztea eta garatzea, eta, orobat, mekanismo horiek baliatzen dituzten prozedura-faseak zehaztea.

Hala, HAPO Berrikusteko Herritarren Partaidetza Programan (2012ko urria) Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorra egiteko, bideratzeko eta onartzeko faseak daude deskribatuta, herritarrek parte hartzeko mekanismoak ezartze aldera.

[Ikusi 1. eranskina. HAPO Berrikusteko Herritarren Partaidetza Programa]

3. Prozesuaren faseak

Hauek dira programako fase teknikoak:

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none"> I. Herritarren Partaidetza Programa eta Aurretiko Azterketak.¹ II. Aurre-aurrerapena. III. Aurrerapena. IV. HAPO Berrikusteko irizpide eta helburuen gaineko erabakia. V. HAPOren Berrikuspen dokumentua idaztea eta hasierako onespina ematea. VI. HAPO behin-behinean onestea. VII. HAPO behin betiko onestea. |
|---|

Txosten hau lehen faseari buruzkoa da, Herritarren Partaidetza Programa eta Aurretiko Azterketak izeneko faseari buruzkoa, hain zuzen; lehen fase horrek azpifase nagusi hauek dauzka:

- a) Aurretiko azterketak egitea.
 - b) Udal-organo eskudunak Herritarren Partaidetza Programa onartzea.
 - c) Lantaldea osatzea.
- | |
|--|
| <ol style="list-style-type: none"> d) Herritarrek parte hartzeko prozesua: jendearentzako prestakuntza-hitzaldi irekiak eta Lantaldearentzako lehenbiziko lan-deialdia egitea, aurretiko azterketak jorrazteko.² e) Aholkularitza Batzordeari Aurretiko Azterketen gaineko kontsulta egitea. f) Txosten teknikoak idaztea. |
|--|

4. Metodologia partizipatiboa

Prozesu honetan baliatu dugun eztabaida-metodologia enpresa honek diseinatu du: Delibera Serveis de Participació Interactiva SL. Ohiko partaidetza-metodoak ez dira oso eraginkorrak, gehiago dira eztabaidatzeko

¹ Fase hori martxan dago.

² Azpifase hori 2013ko maiatza eta ekaina bitartean gauzatu zen.

eta irabazi edo galtzeko, besteen argudioekin ikasi eta erabakiak adosteko baino. Gure metodologian, ordea, prozedura berriak erabili ditugu: hitz egiteko txandarik eta botaziorik gabe gaiak adostu ditugu, guztiek eduki dute haien iritzia emateko eta argudioak adierazteko aukera, eta adostasun-mailak zehaztu eta, behar izanez gero, aldatu egin ditugu. Hori guztia bertaratzeko dinamikak (bilerak, Delibera txarteekin) eta dinamika telematikoak (deliberaweb foroak) uztartuz.

Metodologia horren bitartez bileren eraginkortasun eza gainditzen da, motibazioa galarazten duten inertiak hausten dira eta taldearen adimena eta eraginkortasuna sustatzen dira.

Deliberazio-partaidetzan ardatza ez da adierazpen librea, ezta gehiengoa lortzea ere, baizik arazo kolektiboei eta gizarte konplexuen erronka komunei aurre egiteko balio duten prozesuak eraikitzea.

Gainera, metodologia horrek laguntzen du partaidetza-prozesuko etapa guztietan esku hartzen; hauek dira etapak: arazoak planteatzea eta lehenestea, konponbideak proposatzea, egokiak diren ala ez eztabaidatzea, adostea eta konponbide horien aplikazioan, ebaluazioan eta segimenduan inplikatzeko.

Funtsean, metodologia partizipatibo horrek:

- Entzutea, arrazoitzea, argudioak ematea, adostasuna bilatzea eta konponbide berriak eraikitzea sustatzen du.
- Lortutako emaitzek indar eta legitimitate gehiago izateko aukera ematen du, partaide guztiak inplikatzen direlako eta zenbaitetan gehiengoaren ikusmoldea aldatu dezaketean gutxiengoei ahotsa ematen dielako.
- Bilerak eraginkorrak izatea, akordioak lortzea eta emaitzak ikustea ziurtatzen du.

“Delibera” sisteman, dauzkan faseetako prozedurak kalitatezkoak izan daitezkeen errazteko eta ziurtatzeko, semaforo koloreak eta aurpegierak (smiler direlakoak) erabiltzen dira, web orrian zein paperean, modu digitalean zein bertaratzeko bileretan, eta hainbat aukerekin (koloreak eta aurpegierak dauzkaten txartelak). Sistema horren bitartez partaideek erraz eta ikusteko moduan adierazten dute zein den aztergaiaren gainean daukaten ikusmoldea, eta deliberazio-prozesuak arinak, gardenak eta emaitzei begirakoak izaten dira.

1. irudia. Sistemaren deliberazio-tresnak.



5. Partaidetza-jardueren deskribapena (1. fasea)

5.1 Prestakuntza-etapa

Etapa honetan, batetik, partaidetza-proposamen bat egin genien Lantaldeari eta prozesuan inplikatutako gainerako agenteei; bestetik, lehenbiziko saioan aurkezteko eta lantzeko edukia zehaztu genuen; eta, azkenik, eduki hori modu ulergarrian aurkezteko moduan jarri genuen, Lantaldeko kideek haien iritzia eman zitzaten.

Fase honetan bi prestakuntza-saio egin genituen, eduki teknikoak ezagutzera emateko.

Etaparen iraupena: apirilaren 23tik maiatzaren 15era.

5.2 Partaidetza-etapa

Lehenbiziko saioa:

Lehenbiziko saioa maiatzaren 16an egin genuen, 17.00etatik 21.00etara, eta hau zen egitaraua³:

- Hirigintzako arduradun teknikoak saioa aurkeztea (helburuak, edukiak...) eta Lantaldeko kideei egoki parte hartzeko jarraibideak eta aholkuak ematea.
- Lantaldeko kideek haien burua aurkeztea eta partaidetza-prozesuaz espero zutena azaltzea.
- Banakako lan-saioa. Aztergaiari buruzko galdeketa banatu genituen eta partaideek galdera orokorrak erantzun behar zituzten, labur-labur.
- Lantaldeak aintzat hartu behar dituen I. faseko (Aurretiko Azterketetako) elementuen alderdi teknikoa azaltzea. Laburpen-planoaren aurkezpena egin genuen eta amaieran partaideei eman genien hitza, haien zalantzak argitzeko.
- Lantaldeak I. faseko prozesuan parte hartzea errazteko deliberazio-metodologia aurkeztea.
- Saioa baloratzea.

[Ikusi 2. eranskina. Lantaldearen lehen saioa egitaraua (maiatzak 16).]

[Ikusi 3. eranskina. Aurretiko galdeketa.]

[Ikusi 4. eranskina. Metodologia partizipatiboari buruzko dokumentua.]

[Ikusi 5. eranskina. Web-foroetan parte hartzeko jarraibideak.]

[Ikusi 6. eranskina. Aurretiko galdeketen erantzun digitalizatuak.]

[Ikusi 7. eranskina. Lantaldeko kideek lehenbiziko saioan egindako ekarpenak.]

Lau egun igaro ondoren bi deliberazio foro ireki genituen, bata Lantaldeko kideentzat eta bestea ordezkotzat, baloratu eta komentatu beharreko baieztapenekin. Tresna informatikorik ez zutenei behar zuten materiala eman genien, paperean.

[Ikusi 8. eranskina. Sarbide-gakoak bidaltzeko mezu elektronikoaren eredu.]

Partaidetza web-foroetan eta paperean

Foroetan partaidetza-prozesua hasi ondoren, partaideek Aurretiko Azterketen sei multzoetako 23 baieztapenak baloratu zituzten eta, nahi izanez gero, baita iruzkinak eta iradokizunak egin ere. Bi partaidetza-kanal zeuden: web-foroak eta paperezko formularioak.

Web-foroetan eta formularioen bitartez parte hartzeko 15 egun eduki zituzten (maiatzaren 21tik ekainaren 4ra); epe horretan balorazioak eta ekarpenak egin ahal izan zituzten, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

Prozesu horretan zalantzak eta arazoak konpontzeko helbide elektronikoa hau jarri genuen partaideen eskura: info@delibera.info.

Web-foroetan eta formularioa medio parte hartzeko epea amaitu ondoren datuak bildu eta aztertu genituen, bigarren saioa prestatzeko. Behin partaidetza-kanalak itxita, prozesuko emaitzen gaineko txostenak egin eta deliberazio-saioetarako egokitu genituen, eskema hau oinarri hartuta:

- Partaide, balorazio eta iruzkin kopuruei buruzko datu kuantitatiboak ematea.
- Baieztapenen adostasun-mailak azaltzea eta, egindako iruzkinen arabera, adostasun gutxien duten baieztapenak egokitu eta baieztapen berriak proposatzea.

[Ikusi 9. eranskina. Lehenbiziko saioa web-foroetan parte hartu dutenen zerrenda.] [Lantaldea eta ordezkotzak.]

³ Lana taldeka egiteko asmoa genuen, baina azkenean ez genuen hala egin, lehentasuna eman geniolako Lantaldearen zalantzak argitzeari eta haien ohar eta iradokizunak jasotzeari eta ez genuelako denbora nahikoa eduki.

Bigarren saioa (deliberazioa):

Web-foroetan parte hartzeko eta formularioak entregatzeko epea amaitu ondoren bigarren saiorako deia egin genien lehenbizikoan parte hartu zuten guztiei, jasotako ekarpenen gainean eztabaidatze aldera.

Bigarren saioa ekainaren 6an egin genuen, 17.00etatik 21.00etara, eta hau zen egitaraua⁴:

- Jorratutako multzo bakoitzeko adostasun-mailaren berri ematea. A eta B multzoko baieztapenak proposatu genituen. C, D eta E multzoetan, baieztapenetan adostasun gutxi zegoenez, foroetan jasotako iruzkin orokor eta espezifikoak aintzat hartuta egindako baieztapen berriak proposatu genituen.

- Aurkeztutako baieztapenen gaineko adostasun/desadostasun-maila berriak jasotzea, bertaratuek adierazitako argudioak eta Delibera txarteekin egindako balorazioak kontuan hartuta.

- Saioaren balorazioa (kalitate-kontrola).

[Ikusi 10. eranskina. Web-foroetako eta Lantaldearekin egindako saioko emaitzak (titularrak).]

[Ikusi 11. eranskina. Web-foroetako emaitzak (ordezkoak).]

[Ikusi 12. eranskina. Emaitzen berri emateko mezu elektronikoaren eredia.]

Etaparen iraupena: Maiatzaren 16tik ekainaren 6ra.

5.3 Ebaluazio-etapa

Ikusi informazioa **7. kapituluan**.

6. Lehen faseko emaitza nagusiak (balorazio eta ekarpen garrantzitsuak)

Atal honetan deliberaweb foroetan eta bertaratzeko deliberazio-saioan jaso eta gero aztertutako ekarpenak oinarri hartuta **moldata eta proposatutako sintesi-baieztapenak** aurkeztuko ditugu.

Ondorioen txostenean (ikusi 13. eranskina) eta web-foroetako eta deliberazio-saioko emaitzen txostenean (ikusi 10. eta 11. eranskinak) daude 6 multzoetako item guztietako ekarpen, iruzkin eta adostasun-mailak.

Proposamenak multzoka eta bi kolorerekin aurkeztuko ditugu: **letra lodi beltzez** web-foroetan jasotako ekarpenak (titularrenak eta ordezkoena) eta **letra lodi urdinez** bertaratzeko saioan jasotako ekarpenak.

A multzoa: udaljerri-eredua

[Lantaldeko kide batzuk adierazitakoaren arabera, “hiri-eredu”ren ordez “udaljerri-eredu” erabiltzea proposatu genuen, ereduak eta haien ezaugarriek udaljerri osoa hartzen dutelako, ez hiria bakarrik.]

A.1. Daukagun udaljerri-eredua

Proposatutako sintesi-baieztapena:

⁴ Asmoa zen 23 baieztapen lantzea, baina denbora faltagatik 9 baieztapen garrantzitsuenak landu genituen.

Gaur egun, Getxoko ondare historikoa dela eta, udalerrri-eredu mistoa daukagu, baina auzo bakoitzak bere bereizgarriak dauzka. Getxo batik bat lo-hiria da eta zerbitzu- eta merkataritza-sektoreak dira nagusi; lehen sektoreak (nekazaritza eta arrantza) eta bigarren sektoreak (industria) pisu gutxiago dute.

A.2. Nahi dugun udalerrri-eredua

Proposatutako sintesi-baieztapena:

Lurzoruaren erabilera anitzak zentzuz eta modu eramangarrian uztartzen dituen eredu mistoa; auzo eta biztanle-multzo guztietan gizarte-kohesioaren alde egiten duen eredu.

B multzoa: hiri-hazkundera eta -dentsitatea

B.1. Hiri-egitura trinkoak edo zabalak

Proposatutako sintesi-baieztapena:

Egitura trinkoa da egokiena, hau da, lurzoru naturala ahalik eta gutxien hartzea, erabilerak eta jarduerak nahastea, **mugikortasun aktiboa (oinezkoak, txirrinduak...)** eta garraio publikoa sustatzea, **baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea**, energia aurrezteak, nukleo anitzeko hiri bat eratzea, **gizarte-kohesioa eta -lotura bultzatzea, banakoen eta kolektiboen arteko elkarrekintzak eta sareak ardatz hartuta, biztanleen premiei erantzute aldera.**

B.2. Hiri-lurzoruaren dentsitate-tipologia

Proposatutako sintesi-baieztapena:

Dentsitate ertaina da egokiena (hektareako 50-75 etxebizitza), dentsitate txikiaren eta oso handiaren aldean.

B.3. Lurzoru urbanizagarriaren dentsitate-tipologia

Proposatutako sintesi-baieztapena:

Dentsitate ertaina da egokiena (hektareako 50-75 etxebizitza), dentsitate txikiaren eta oso handiaren aldean.

C multzoa: lurraldearen antolamendua

Proposatutako baieztapen berria:

1. Lurraldea antolatzeko tresnek (LPP eta LPS) ez dute babesten ingurune fisiko eta naturala, eta, babesten badituzte ere, ez dira behar bezala betetzen. HAPOk egoera hori hobetu behar du.

Babesteko dauden leku garrantzitsuak:

Andra Mari (babes berezia behar du, ziurtatzeko, batetik, paisaia osatuko dutela etxe, baserri, zelai, baratze, heskai eta basoek; eta bestetik, biodibertsitateari eutsiko zaiola), Barinatxeko dunak, La Bola hondartza, Abra, Azkorriko kostaldeko korridorea, Baserri bailara, Galeako itsaslabarrak, Aiboako zuhaiztia, Gobela ibaiaren ibilgu berria eta geratzen diren berdegune guztiak.

D multzoa: arte- eta arkitektura-ondarea

Babestu eta arte- eta arkitektura-ondaretzat hartu behar diren lekuak:

Getxoko baserriak (batzuk XVI. mendekoak dira), ur-errotak, garbitokiak, Erromoko Nagusien etxea eta Euskaltegia, herriko frontoia eta plazako kioskoa.

E multzoa: sistema orokorrak

Proposatutako baieztapen berria:

1. **Gaur egun hiri-lurzoruan dauzkagun** espazio zabalak, hau da, udalerrri osoarentzako edo, behintzat, auzo batentzako baino gehiagorentzako diren parkeetako (adibidez: Zugazarte, Campa del Loro, Generatxu, Urkijobaso eta Usategiko) sistema orokorrak **ez** dira nahikoa. **Jende gehiago bizi den lekuetan faltan daude (Algortan eta Aretan), eta segurtasuna hobetu eta sarrera erraztu beharko lirateke.**

Proposatutako baieztapen berria:

3. Bidegorriei dagokienez, LPParen arabera, Lamiakon eta Azkorrin loturak egin beharra daude. Lotura horiek, gaur egun dagoen sarea eta egingo diren zati berriak (automobilekin batera ibiltzekoak) kontuan hartuta, **sare funtzional eta seguru bat sortu behar da, eta irisgarritasun-araudia bete, bizikleta, aisiarako ez ezik, ohiko joan-etorriak egiteko ere erabiltzea sustatzeko.**

Proposatutako bidegorri zati berriak:

Los Chupos eta Ereaga lotzea eta Algortatik Ereagara bizikletaz jaitsi ahal izatea, malda handia den arren.
Beste zati batzuk: Sarrikobaso, Andra Mari kiroldegia, Geroa/Europa – Maidagan, Gobela Ikastola eta Artaza Gane auzoa (Leioa), Ollaretzeko zuzena eta bidegorria gertu daukaten ikastetxe guztiak.

Hemen azaldu gabeko gainerako baieztapenak adostasun-maila handia zuten deliberaweb foroan edo, bestela, baloratutako baieztapenetan jasotako edo hurrengo faseetan sakonago jorrazteko elementu zehatzei buruzkoak ziren.

[Ondorioen txosten osoa 13. eranskinean dago.]



7. Partaidetza-prozesuaren ebaluazioa

7.1 Lehen saioari buruzko balorazioak

Lehenbiziko saioa, oro har, ona izan zen, denbora faltagatik landu ezin ziren programako gai batzuk egokitu egin behar izan ziren arren. Alde horretatik, erabaki genuen denbora gehiago erabiltzea zalantzak argitzeko, iradokizunak jasotzeko..., taldea teknikariek proposatutako baieztapenak balioesteko edo hobetzeko baino. Dena den, hasieran aurreikusi gabeko baieztapen berriak sartu genituen web-foroetako F multzoan, lehenbiziko saioa aurretiko galdeketa (ikus 3., 6. eta 7. eranskinak) jasotako ideiak aintzat hartuta.

Ebaluazio-galdeketa lehen saioaren funtzionamenduari eta garapenari buruzko 14 itemen gaineko 765 balorazio jaso genituen.

Hona hemen saioari buruzko itemen balorazioen grafiko globala, adostasun-mailaren arabera egina:

11. Prozesuaz arduratzen den taldeak aintzat hartu ditu partaideen iradokizunak, zalantzak, e.a.	
4. LANTALDEA aurkezteko dinamika ezinbestekoa eta egokia izan da elkar ezagutzeko.	
8. Lehenbiziko saioak prozesuan parte hartzeko motibatu nau.	
12. Nire ikusmoldea zein den adierazteko aukera eduki dut.	
13. Saioa bertaratutakoen jarrera egokia izan da.	
14. Saioan lortutako emaitzekin gustura nago.	
1. Saioa egindako lekua egokia iruditu zait.	
10. Saioari esker interes gehiago daukat planteatutako gaien inguruan.	
6. Eduki teknikoak argi eta garbi eta ulertzeko moduan aurkeztu dituzte.	
7. Metodologia partizipatiboa prozesuko helburuak lortzeko egokia iruditu zait.	
2. Saioaren iraupena egokia izan da.	
3. Saioa aurreikusitako ordutegian egin da.	
5. Aurretiko galdereri esker prozesuaren gaineko informazioa eman dut eta ekarpenak egin ditut.	

Partaide gehienak ados daude ebaluazioan planteatutako gaiekin. Gainera, partaideei oso egokiak iruditu zaizkie prozesuaren arduradunen arreta, erantzunak eta argibideak, baita Lantaldeko kideak aurkezteko dinamika ere.


Ordea, metodologia partizipatiboaren eta hasieran aurreikusitako epe eta ordutegien gainean zalantzak zeuzkaten.

Dena den, jasotako 15 iruzkin eta oharren arabera, azpimarratzekoak dira partaideen motibazioa eta espektatibak. Baina ekarpen kritikoak ere egin zituzten, gai hauen gainean, hain zuzen: parte hartzeko denbora mugatzea eta saioen ordutegiak familia eta lana uztartzen ez uztea, metodologiari, funtzionamenduari eta azpiegiturari buruzko beste gai batzuek gain.

7.2 Bigarren saioari buruzko balorazioak

Ebaluazio-galdeketa bigarren saioaren eta web-foroen funtzionamenduari eta garapenari buruzko 16 itemen gaineko 752 balorazio jaso genituen.

Hona hemen saioari buruzko itemen balorazioen grafiko globala, adostasun-mailaren arabera egina:



Oro har ikusten da partaide gehienek ideiak, argudioak, e.a. adierazteko aukera izan zutela. Gainera, lehenbiziko saioan ez bezala, bertaratuek egokitzat jo zuten bilera egindako lekua. Egokiak iruditu zitzaizkien, halaber, dinamizatzailearen irudia eta funtzioak.

Aitzitik, ebaluazioen arabera, dinamika partizipatiboaren gainean zalantzak zeuzkaten.

Iruzkin eta oharrei dagokienez, bost ekarpen kritiko jaso genituen dinamika partizipatiboaren, ordezkoen taldearen gainetik Lantaldea lehenestearen eta foroetan parte hartzeko denbora faltaren gainean.

8. Prozesuari buruzko datu estatistikoak

Web-foroetako partaidetzari buruzko datuak:

Datu absolutuak	Titularrak	Ordezkoak
Parte hartzeko jarraibideak jaso dituen jendea.	73	95
Parte hartu duten erabiltzaileak.	49	27
Item kopurua.	45	806
Balorazioak, guztira.	1.466	24
Iruzkinak egin dituzten erabiltzaileak.	38	234
Iruzkinak, guztira.	347	95

Datu erlatiboak	Titularrak	Ordezkoak
Foroetan parte hartu duten erabiltzaileen portzentajea.	%67,1	%28,4
Iruzkinak egin dituzten partaideen portzentajea.	%52,1	%25,3

Lan-saioetako partaidetzari buruzko datuak:

-Lehenbiziko lan-saioa (2013ko maiatzak 16): **65**.

-Bigarren lan-saioa (2013ko ekainak 6): **52**.

9. Eranskinak

1. eranskina. HAPO Berrikusteko Herritarren Partaidetza Programa.
2. eranskina. Lantaldearen lehen saioko egitaraua (maiatzak 16).
3. eranskina. Aurretiko galdeketa.
4. eranskina. Metodologia partizipatiboari buruzko dokumentua.
5. eranskina. Web-foroetan parte hartzeko jarraibideak.
6. eranskina. Aurretiko galdeketen erantzun digitalizatuak.
7. eranskina. Lantaldeko kideek lehenbiziko saioan egindako ekarpenak.
8. eranskina. Sarbide-gakoak bidaltzeko mezu elektronikoaren eredia.
9. eranskina. Lehenbiziko saioko web-foroetan parte hartu zutenen zerrenda.
10. eranskina. Web-foroetako eta Lantaldearen saioko emaitzak (titularrak).
11. eranskina. Web-foroetako emaitzak (ordezkoak).
12. eranskina. Emaitzen berri emateko mezu elektronikoaren eredia.
13. eranskina. HAPO berrikusteko lehen faseko partaidetza-prozesuaren ondorioei buruzko txostena.